

BALIO ERANTSIA

Proiektua, gizartean aurkitutako asetu gabeko behar batean oinarritzen da. Gaur egungo eskolak oso garatuta egon arren, ez dira behar adina inklusiboak. Ikasle askok, klaseak jarraitzeko zailtasunak aurkitzen dituzte, eta ikastolek ez dituzte laguntzeko beharrezko materialik. Arazoa batez ere DBH-ko bigarren mailatik aurrera agertzen da, non ez dituzten egokitasun nahikorik. Bestalde, egokitasunak ez dira ikasle bakoitzaren beharretara egokituak, baizik eta desgaitasunak dituztenentzat prestaturik daude. Horrez gain, egokitasunak azterketetan agertzen dira batzuetan, baina klaseak jarraitzeko, lanak egiteko edo beste arlo batzuetan, ez dute erraztasunik.

Gai hau askok kezkatzen gaitu enpresa gisa, ez baitzaigu justua iruditzen ikasle hauentzat. Desgaituek behar bereziak dituzte, eta hezkuntza sistema sarritan ez dago egokituta horiek asetzeko, eta hori ez da onargarria. Ikastetxeetan jende berezi



asko dago, baina arazoa da ez zaiela kontuan hartzen. Ondorioz, desabantailak dituzte ikasterako orduan, gorabehera gehiago dituztelako. Azterketetako emaitzetan eragin ikaragarria du ere; izan ere, notak baxuagoak izaten ohi dira, eta gainera, batzuetan, ez dira gainditzeko notara heltzen. Ildo beretik, arrazoa ez da ez direla gai gainditzeko, baizik eta haien gaitasunak beste limite batzuetara heldu daitezkeela prestakuntza horrekin. Beste adibide adierazgarria izan daiteke lan taldeak egiterakoan, komunikazioan, aurkitutako arazoak. Laburbilduz, ez dituzte beste ikasleen aukera berdinak, eta horregatik, atzeratuta geratzen dira.

Hori kontuan hartuta, aplikazio bat proposatzen dugu behar hauei konponbidea emateko, eta batez ere, errugabetze-arazoak konpontzeko. Aplikazio honek desgaitasunak dituzten pertsonen laguntzeko eta eskolan integratzeko sortuta dago, baita beste ikasleek dituzten baldintza berdinak eskaintzeko ere. Adibidez, entzumen-falta duten pertsonentzat adimen artifiziala erabiliko dugu, irakasleak esaten duena ordenagailuan idatzita agertzeko, irakurri ahal izateko. Dislexia dituztenentzat joko moduko bat sortu dugu, azalpenak ordena egokian jarriko dituen. TDAH duten ikasleen kasuan, informazioa modu bisualagoan antolatuko da, irudiekin, koloreekin, testua azpimarratuta... Itsuentzat, braillezko kodeen plantillak eskainiko dira. Aplikazio honek ikastetxeekin kolaboratuko

du, umeen egoera aztertzeke eta informazioa eskuratzeko. Ikastetxe gutxirekin hasiko da, bat edo bi, eta behar izanez gero, beste batzuentzako egokituko da, ikasleen beharrak asetu ahal izateko eta laguntza pertsonalizatuagoa eskaintzeko.